

AITON –AMONAK ESKOLAN

Zubietako eskolak utopia bat bizi du eta bere ikasleekin eskolak baldintza hauek betetzea nahi dute:

- Haurrak eskolara pozik etortzea.
- Eskolan inor ez aspertzea.
- Eskola munduari irekita egotea.
- Haurren sormena errespetatzea.
- Haurrak berezko duten ilusio eta interesa ez zapuztea.
- Haurrak diren bezala izan ahal izatea.
- Maitatuak sentitzea.
- Irakasleak gustura sentitzea.

ESKOLA TXI KI AK UTOPIA BIDEAN. Beraien ustez, aurreko guztia lortzeko bidea proiektu bitartez lan egitea izango da. Eta hemen horietako proiektu bat azalduko dugu, "aiton – amonen bisita " hain zuzen ere. Proiektu honekin 3 helburu lortu nahi izan zituzten; aiton-amonak eskolako partaide izatea, belaunaldien arteko transmisioa gauzatzea eta ikasketa prozesu esanguratsu eta globalizatzailea bultzatzea.

Ondorengo hauek izan dira burututako lanak;

- Galderak prestatu.
- Materiala prestatu.
- Elkarrizketa.
- Aiton-amonek dakarten ekintza burutu.
- Irakasleak idatzi eta liburuxkak eratu.

Esperientzia guztientzat oso positiboa izan zen, ikasle, irakasle eta aiton-amonentzat ere.